

**CIE AUTOMOTIVEK, EUSKAL HERRIAN DITUEN LANTEGIETAN,
ENPLEGU GALERA HAUTATU DU**

CIE Automotive taldeak, Euskal Herrian 12 lantoki dituen, urtez urte, mozkinak etengabe agerikoak egin eta aldi oro, atzerrian lantokiak erosi arren, Euskal Herrian dituen lantegietan bestelako etorkizuna du, askoz ere ilunagoa izango dena.

Honela bakarrik uler daiteke gure herriko lantoki gehienetan plantilak murriztea erabaki izana, azpikontratazioa eta lanak kanpora eramatea eta euskal CIE-tan lan egiten duten 1867 langileen lan baldintzak okertzea erabaki izana. Honen azken adibidea, CIE-k Tarabusirentzako proposatu duen enplegu galera berria (enpresa honen plantila etengabe murrizten ari dira).

Dena den, egoera honek ez dio eragiten lantegi bati bakarrik. Honatx azken urteetan plantila urritu duten beste lantegien adibidea:

Lantokiaren izena	Iraganeko langile kopurua. Gutxi gorabehera	Egungo langile kopurua 2007. URTEA
<i>GSB-Forja (Legazpi)</i>	2002 urtea: 377	359 (-18 enplegu)
<i>Tarabusi (Igorre)</i>	2002 urtea: 327	236 (-91 enplegu)
<i>Inyectametal (Abadiño)</i>	2005 urtea: 349	300 (-49 enplegu)
<i>Udalbide + Stuka</i>	2002 urtea: 116	97 (-19 enplegu)
<i>CIE-Norma (Eibar)</i>	2002 urtea: 188	164 (-24 enplegu)
<i>CIE-Egaña</i>		200 gutxi gorabehera.
<i>Gameko (Legutio)</i>		98

(Hemen bildu ditugun datuak, gutxi gorabeherakoak dira, plantillen datuak uneoro aldatzen baitira. LABek enpresa-batzordean ordezkaritza duen lantokietakoak dira)

Kontuan hartu behar da, azken bi urtean, CIE taldeak, Euskal Herrian, besteak beste, Alfa Deco eta Recyde enpresak erosi dituela (biak Elgetakoak, bakoitzak 59 bat eta 98 bat langile dituztenak). Aldiz, 2006. urtean Gerdau (Sidenor) taldeari saldu zizkion Azkoitiko eta Legazpiko lantokiak (900 bat langile zituztenak).

Honez gain, eta LABen iritziz, **kezkarriena, CIE Taldeko Euskal Herriko Zuzendaritzak gure herrian dauden lantegietako enplegua murrizte eta lanetik bidaltze politikari eutsiko diola aurreikusi izana litzateke. Enpresa Batzordeei eta beren lantegietako enplegatuei jakinarazi diete: “datozen urteetan murriztuko dugu lantegi honetako langile kopurua”.**

Honelakoxea baldin bada Euskal Herriko metalgintzan erreferentziala den eta egun milioi askotako mozkinak dituen enpresa baten politika, kasu honetan CIErena, zer ez dute egingo beste enpresek?

EAEko administrazioaren jarrera bereziki salagarria da ere. Industria Saila honen buru izanik, errealitate honi ezikusiarrena egiten dio eta nahiago izaten du beste alde batera begiratzea gure industriaren etorkizuna jokoan dagoenean: oso egoera onean dauden puntako enpresek enplegua suntsitzearen alde egiten dutelako.

EGOERA HONETAN, LANGILEOK EZ GAITEZKE EZER EGIN GABE EGON! LABek beharrezkoa deritza mobilizatzeari eta CIEko enplegua suntsitzeko asmoei aurre egiteari. GURE ETORKIZUNA JOKOAN DAGO.

DEFENDA DEZAGUN CIE-KO ENPLEGUA!!!